

Eusko Legebiltzarrak 1.246 obra sartu ditu Euskadiko Liburutegi Digitalean

Parlamentuan gordetako liburu horiek Internet sarean daude eskuragarri dagoeneko, faksimil eran

Erredakzioa. Gasteiz

Eusko Legebiltzarrak eta Jaurilaritzako Kultura Sailaren arteko akordioari esker 1.246 obra digitalizatu dira, eta sarean ipini dituzte eskuragarri faksimil eran, Euskadiko Liburutegi Digitalean. Liburu horiek guztiak Legebiltzarrean gordeta dauden funtsetatik ateratakoak dira.

Besteak beste, Betolazaren Doctrina Christiana obra dago Interneten jarritakoen artean, 1596an Bilbon argitaratutako euskarazko katezismoa; ezagutzen diren XVI. mendeko euskarazko sei obretako bat da Betolazarena. Axularren Guero-ren lehen edizioa eta XVIII. mendeko lehenengo hamarkadetako bigarren edizioa ere Euskadiko Liburutegi Digitalean daude.

Guztira 300.000 irudi digital elkartu dira, 1.246 obretako irudiak, orrialdeen argazkiak. Sancho el Sabio Fundazioak lehendik argitaratu gabeko izenburuak dira orain digitalizatutakoak, bikoiztasunik ez sortzeko. Kultura Sailak esan duenez, obra horiek guztiak ikertzaileentzat, eta, oro har, gizartearentzat baliotsuak izango dira, betiere Internet sarean doan izanik. Euskal hizkuntza, kultura eta historiografia aztertzeko interes handikoa den funts patrimoniala da.

Euskadiko Liburutegi Digitalean sartu dituzten obrak 1830ekoak baino zaharragoak dira, asko eta asko agiri historikoak. Horien artean Bizkaiko Foruaren lehen edizioa azpimarratu behar da, Juan Juntak Burgosen argitaratutakoa, 1528an. Harekin batera Marin de Coscojalesen Antigüedades de Vizcaya nabarmendu daiteke, idazlearen eskuizkribu originala dela uste baitute adituek, 1590. urtekoa.

Eusko Legebiltzarrak digitalizatu dituen hainbat eta hainbat obra - Axularren Guero eta Betolazaren Doctrina Christiana, adibidez - Interneten aurki zitezkeen Euskadiko Liburutegi Digitalean sartu aurretik ere, testu erabilgarri gisa, Armiarma webguneko (www.armiarma.com) Klasikoen Gordailua-n.